

AURKIBIDEA

SARRERA

IDENTITATE EZAUGARRIAK

- Hezkuntza Prozesu integrala / Askatasunerako heziketa
- Metodologia
- Eskola euskalduna
- Aniztasuna eta balore demokratikoak
- Eskola kohezitzailea
- Gestio eredua

HELBURUAK

- Prozesu integralarekiko
- Metodologiarekiko
- Hizkuntza eta kulturarekiko
- Aniztasuna eta balore demokratikoarekiko
- Hezkidetzarekiko
- Zentroko gestioarekiko

EGITURA

- Ikastolaren barne antolaketa
- Irakasleriaren antolaketa

SARRERA

Ez dugu gezur handirik esaten, lehen urratsetatik hasita, nortasun ezaugarri garbi samar batzuk izan zituela gure ikastetxearen esperientziak, diogunean.

Langile ikastolaren historiaren lehen unetik ordurarteko eskola mota (“eskola tradizionala) gainditzeko borondate garbi bat islatzen da, guraso, irakasle eta laguntzaileen arteko bileretan. “Eskola Berri” baten filosofia eztabaidatu eta ikuspegi berria praktikara eramateko ahalegina egin zuten, honako puntu hauen inguruan:

- Eskola euskalduna: eskola-hizkuntza euskara izango zuen eskola
- Eskola jerarkizatu eta autoritarioarekin haustea
- Inguruarekin harreman estuan egon behar zuen eskola
- Familia eta eskolaren arteko harremanaren garrantzia
- Gestio demokratiko eta partehartzailea
- Freinet-en lana aztertu ondoren, Metodo Naturala praktikan jarri zuten
- Garrantzi berezia ematen zitzaien irakasleriaren formazioari, ikastaro eta abarretan parte har zedin bultzatuz.

Bestalde, herrian zegoen beste ikastolatik jasotzen ziren erasoak zirela eta, (lehen eskolaurrea beste ikastolaren menpe zegoen, eta beronek nahiko gaizki ikusten zuenez egin nahi zena, programa estu bat ezarri zuen) guraso eta irakasleen arteko batasun loturak indartu ziren eta ikastolan, barne dinamika berri eta aberats bat sortu zen:

- zegokien etaparen psikologia ezaugarrietaz jabetu nahirik,
- metodologia aztertu eta eztabaidatzeko,
- gestioaren lehen urratsak finkatzeko,
- auzo elkartearekin batera hainbat ekintza antolatu ahal izateko,
- helduen euskalduntzeari erantzun asmoz,
- erlijioaren aurrean jokabide komun bat erabakitzeko (nahitaezkoa sasoi hartako “programa” ofizialetan).

Proiektu berria herrian lortzen ari zen oihartzunaren aurrean, sektore batzuen kritikak gogortu egingo dira (70. hamarkadaren hasieran), ikastola “politizatzea” eta “ateoak” izatea leporatuko zaie sortzaileei (sasoi horretan benetan deseroso eta nahasgarriak gertatzen ziren “mamuak”).

Azpiegitura aldetik ere urte gogorrak gertatu ziren haserakoak, izan ere, loka eskasiari diru premiarena gehitu behar baitzizkion. Irakasleen soldatak ordaindu ahal izateko, diru iturrien bila bideratu ziren hamaika ahalegin: zozketak, bazkide laguntzaileak, kanpainak, e.a.

Halere, ikastetxearen kokatzeari dagokionez, oinarrizko irizpide batzuk finkatzen joan ziren eztabaidaren harian:

- ez zen inolako masifikaziorik nahi, ez gela barrenean eta ezta ikastetxearen gela kopuruari zegokionean ere.
- ez zen inolako patrimonio pribaturik nahi

1976. urtetik aurrera, kooperatiba gisa legeztatu eta “Langile” izena hartuko du esperientziak. Harez geroztik garbi eta finkaturik geratuko da:

- herri eskola bat izan nahi duela Langilek
- sektore guztiei irekia, elitismo guztiak baztertuz
- ondorioz, ikastetxearen jabetza propioak zekartzan karga ekonomikoak ikusita, herriaren lokaletan kokatzearen beharra azpimarratuko da
- gainera, herrian txertatutako eskola nahi zenez, auzoetan gelak zabaltzearen joerari ekiten jarraitzeko asmoa indartzen da; orduko testu batek zion, *“haurrari bere giroan murgiltzeko, ezagutzeko eta aldatzeko aukera eskainiko dion eskola bat”* zutela helburutzat.

81-82 ikasturtean EEPA kolektiboaren baitan integraturik izango da ikastola Euskal Eskola Publiko Bakar baten alde ahaleginetan, Eusko Jaurlaritzak aurrera atera nahi duen EIKE proiektuaren aurrean alternatiba publiko baten atzetik beste hainbat ikastola, pedagogia talde eta gizabanakoekin batera.

Urte emankorrak izango dira hauek hausnarketari dagokionez. Izan ere, nahi den Eskola Publikoaren ezaugarriak eta helburuak zehazterakoan ikastolarenak birpentsatuko baitira. Honako hauek zirela genion irakaskuntza publikoaren bidez lortu nahi genituenak:

- heziketa zientifikoa:
 - lan intelektual eta esku lanaren artean etenik sortu gabe
 - taldeko lanaren emaitza gisa,
 - ekintzan oinarritua
- espresio era guztiak landuz haurraren ahalmen guztiak bilakatu arazi (espresio idatziaren neurrigabekeria gainditu asmoz)
- hezkuntza komunitate osoari kritikarako toki zabal bat eskainiko zion eskola
- elkarlana indartu neurririk gabeko konpetentziaren aurka
- heldutasun prozesu desberdinak errespetatuz, ahalmen maila desberdinak onartuz, bere baitan haur guztiak hartuko zituen eskola
- Euskal Herriko nazio errealitatea ezagutzetik abiatuz, beste herriena ezagutarazteko borondatea duen eskola
- Hezkidetza: sexuan oinarritutako mito eta tabuak gaindituz diskriminaziorik gabeko heziketa baten bila.

Guzti honekin batera, bada Ikastolarentzat funtsezkoa izango den beste ideia edo kontzeptu bat: ikastetxeen AUTONOMIA, alegia. Euskal Eskola Publikoaren sare bakar bat aldarrikatzen genuen, baina, eskola bakoitzaren ardurapekoak iruditzen zitzaizkigun:

- hezkuntza proiektuaren zehaztapena
- berau burutzea eta ebaluatzea
- barne antolaketarik egokiena bilatzea
- errekurtsoen erabilpena

Urteak joan, urteak etorri, ideia nagusi hauek sendotzen joango dira, bai gure ikastolan eta baita beste hainbat ikastetxe, pedagogia talde eta iritzi publikoa osatzen duen sektore batzutan.

89-90 ikasturtearen inguruan, helburu horiek guztiak orokorregiak, ia kontsigna hutsak bilakatu zitzaizkigula nolabait sumatuz, berrikusi eta mamitze berri bati ekiteko sasoia iritsi zela deliberatu genuen (irakasleen klaustro mailan hasiera batetan, gero ikastola komunitate osora zabaltzeko)

Ikastolaren historia osoa berrikusi genuen (1990. urtean liburuxka bat argitara emanez), eskola komunitatearen iritzia jaso ahal izateko galdekizun bat prestatu eta zabaldu genuen ikasle ohi, guraso (ohi eta egungoen artean) eta irakasleen artean, Ikastolako Hezkuntza Proiektu berrituari ekin aurretik.

Honekin batera, nahitaezkoa zaigu LOGSEk planteatutako Erreformaren eragina aipatzea. Abiatuak baginen ere, begi bistakoa da hainbat kezka, nahi eta asmoren aurrean, norabide eta egitura eredu batzuk eskaini dizkigula. Baliagarriak gertatu zaizkigu ere, Erreformaren harian ateratako argitalpen batzuk, eta eskertu nahi ditugu, bereziki, lagundu gaituzten pertsonen kontseilu, orientabide eta hitz suspertzaileak.

Hernanin, 1992ko abenduaren 17a

I.- IDENTITATE EZAUGARRIAK

1.- Hezkuntza, prozesu integrala. Askatasunerako heziketa

“Pertsona bakoitzari, bere egoera baloratzeko eta aldatzeko, besteekin harremanetan jartzeko eta munduaren aldatze eta hobetze lanetan konprometitzeko, gaitasun kritiko baten jabe izaten laguntzean datza, Askatasunerako Heziketa” (P.Freire).

Langile ikastolaren Hezkuntza Proiektua Derrigorrezko irakaskuntza prozesu osoari erantzun nahian sortu zen. Horrela, eta orain arte, ikastolak, helburu honi erantzun dio Oinarrizko Heziketa Orokor osoa (OHO) eratu eta gauzatu.

Gaur egun LOGSEren bidez datorren Erreformatik ikastetxe eta eskola komunitate bakoitzari, Hezkuntza Proiektu propioa egin eta burutzeko eskubidea ziurtatzen dio. Derrigorrezko Irakaskuntza bi urtez luzatzea bermatzen du bestalde (12-16ko ziklo berria sortuz)

Egoera berri honetan ikastolak betiko helburuari atxikita jarraitzen du, 2 urtetik 16ra bitarteko prozesu bat bezala ulertuz proiektua. Bere Hezkuntza Proiektuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari ere erantzun asmoz. Lehen Hezkuntzak jarraipen koherente bat izan beharko du Bigarren ziklo honetan eta horretarako ikastolak egokiak deritzon bide guztiak urratuko ditu.

Gure ikastolak, elkarrekintzan oinarritutako prozesu dinamiko bat bezala ikusten du Hezkuntza; ikasle bakoitzak dituen ahalmen fisiko, afektibo, sozial, artistiko eta sortzaileak garatu eta sendotu ditzan, neska-mutil bakoitzari pertsona aske, kritiko eta solidario izaten lagunduz, eta ikasketa mailak egokituz, ikasleek hurrengo hezkuntza mailetan heziketa prozesua jarrai ahal izan dezaten.

Zenbait neska-mutil arrazoi fisiko, afektibo, intelektual nahiz sozialengatik, heziketa prozesua jarraitzeko irtenbide desberdinen beharrea aurkitzen bada, ikastolaren lan eta zereginetako bat alternatiba egokiak aurkitzea izango da.

2.- Metodologia

Gogoan izango dugu, pertsona bakoitzari, dituen ahalmenak mamitzen laguntzeko, bakoitzaren egoeratik abiatu behar dugula. Horretarako, ikasleekin harreman pertsonalak ziurtatuko dira, masifikazioa alderatuz eta lana bakarka eta talde txikitan bultzatuz.

Eskola etengabeko ikerketa leku izango da. Garrantzizkoa, pentsamendu zientifikoa lantzea da, eta Hezkuntza Proiektua aberastuko duten zenbait pedagogi berrikuntza bildu eta bereganatzeko guztiz irekia agertuko da.

Eskola, bere inguru zehatzean txertatua egongo da.

Irakaslearen zeregina, neska-mutilen esperientziak bideratzea eta animatzea da. Hauekin batera lanean arituz, interes guñeak bilatzen laguntzea, hazkunderako garrantzizko dituzten teknika eta ezaupideak euren kabuz aurkitzen lagunduz.

Ikastolak bere curriculum eratzeari gain, behar hainbat bitarteko eta materialez hornituko ditu gelak, haur bakoitzak “bereak bakarrik” izango diren testu-liburu e.a.en beharrik izan ez dezan. Aldi berean errekurtsuen sozializazioa landuko da gela barruan nahiz gelaz kanpo, bakoitzari erabilera arduratsu bat exijituz.

Diziplinen arteko lotura edo diziplinartekotasuna bultzatuko da. Lotura hau bi mailatan eman daiteke:

- gai batetik abiatuta, diziplinen arteko gertakizunak, kontzeptuak eta printzipioak landuz
- irakasle ekipoaren akordioz, arlo ezberdinetan prozedura, jarrera eta balore berdinak landuz.

Ondorioz, irakasleek ekipoan lana egingo dute; bai mailaren egituraketan, bai ikasturtearen programaketan eta berdin guzti honen aplikapenean.

Irakaskuntza prozesu oso bat denez, gure hezkuntza interbentzioak kontutan izango du:

- ikaslearen heldutasun mailatik abiatzea
- ikasketa esanguratsuen osaketa ziurtatuko da; bizitza eta errealitatearen ezaupidean erabilgarri eta baliagarriak gerta daitezten,
- prozesua orokorrean ebaluatuko dugu kontutan izanik:
 - aurre-ezagupenak eta motibazio mailak
 - erabilitako bitartekoak
 - bakarkako, nahiz taldeetako lana
 - irakasle-taldearen zeregina
 - ikasi diren ezagupen berriak
- horrexegatik ez dugu ontzat ematen ezaguna den “azterketa-nota” neurtze-sistema eta alternatiba gisa, ebaluaketaren ondorioak, gurasoei azaltzen dizkiegu ahoz, maitasun batekin, bileretan
- promozioarekiko iritzia (kurtsoa gainditzea); ikasmaila gainditzeko zailtasunen aurrean, erabaki bat hartu aurretik, kasu bakoitza dagozkion guraso, irakasle eta ikasle berarekin (adinaren arabera) aztertuko dugu. Jakintza mailaz gain beste alde hauek ere kontutan izanik: harremanak, integrazio maila, familia egoera eta heziketa behar berezien aurreko erantzunak (baleude).

Eskola bere inguru zehatzean txertatua egongo da. Hormen itxitasuna apurtuz errealitatearen bila, kalera irtengo da, gure esperientzia aberastu eta osatze bidean jarri dezaketen zenbait bitarteko nahi guraso eta herritarrei ikasgelak zabalduz. Aldi berean, ikastetxean egiten diren ekintzak kalean ezagutzera emanaz eta herriko kultur ekintzetan partaide izanez.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu hau esanguratsua eta ekintzailea gerta dadin, irakasle-ikasleen elkarrekotasuna lortu behar da.

3.- Eskola euskalduna

Euskara da gure herriaren hizkuntza eta Euskal kulturaren jabetasunerako ardatza.

Horregatik, euskara ikasketa –hizkuntza izateaz gain, eskola-bizitzako hizkuntza izango da.

Horretarako, ikastolak berreuskalduntze prozesua bultzatuko du eta euskal kulturaren partaide eragilea izango da. Eginkizun horretan inguruko elkarte eta erakundeekin lan egiteko konpromisoa hartuko du.

Euskal Herriko kulturaren eta gure errealitate nazionalen txertatuz, nazioarteko partaidetza sentimendua eta elkartasuna bultzatuko dituen eskola izan nahi dugu. Ikasgelan, munduko herri guztien bizimodu eta egoera desberdinak ezagutzeko eta baloratzeko jakin-mina piztuz.

4.- Aniztasuna eta balore demokratikoak

Gure ikastola zentro laikoa da, aniztasun ideologikoa errespetatzen duena. Beraz, pluralista da. Horregatik, guraso, irakasle eta ikasleen aukera politiko, sozial, etiko eta erlijioso guztiak errespetatuko ditu.

Errealitatearen ikuspegia anitza denez, dauden ikuspegi ezberdinak ezagutu ondoren, neska-mutilak euren bidea kritikoki aukeratzeko eta bideratzeko gai izango dira.

Gizartearen onerako, ideologia ezberdinak elkarrekin lanean jarduteko aukera emango duen ikastola izan nahi dugu: elkarrenganako errespetuan, besteen iritzia entzuten eta norberarenak azaltzen ikasiz, elkarriketarako gai izanez.

5.- Eskola kohezitzailea

Neska-mutilek, bere nortasun indibiduala era osoan garatzeko aukera eta laguntza behar dute. Ondorioz, nor bere burua estimatzen jakiteko eta elkartasunean oinarritutako pertsonarteko harremanak burutu ditzaten, heziketa afektibo-sexual egokia eskaini behar die eskolak.

Tradizioz, balore batzuk gizonezkoenak eta beste batzuk emakumezkoenak direla esan bada ere, eskola honek ez du horrelako bereizketarik egingo eta ikasle bakoitzaren balore, ahalmen eta ezberdintasunak onartuko ditu, jeneroaren estereotipoak gaindituz.

Hezkidetzaren helburuetako bat neska-mutilak bizitzarako prestatzea da. Baina bakoitzaren abiapuntua desberdina denez, eskolak ezberdintasun horiek kontutan hartu eta bitartekoak eskaini beharko ditu, bata nahiz bestea hezterakoan, aukera berdina izan ditzaten.

Ikastolaren egitekoa da, eskaintzen zaizkigun gisa ereduak zalantzan jarriko dituen jarrera kritikoa sortzea, irakasle eta gurasoen artean beraien jokabide horiek eragindako ondorioei buruzko kontzientzia piztuz.

6.- Gestio eredia

Ikastetxearen gestioa demokratikoa eta partehartzailea izango da. Era honetan, eskola-komunitateko estamentu guztiek beren ordezkari edo errepresentatzaileak izango dituzte komunikazio eta elkarrizketa bideratzeko.

Eskolako partaide guztiak (guraso, irakasle, ikasle, ez-dozente) zentroak daraman heziketa bidean edo proiektuan eragina izateko eta erabakiak hartzeko aukera izango dute:

- ikastolako Hezkuntza Proiektua landu, berraztertu eta eguneratuz
- pedagogia mota aztertzen
- hezkuntza proiektuaren arabera, lanpostu guztien profila eta profil hori betetzeko duen pertsona ziurtatuko da
- ikastolako antolaketan, bere barruko zentroen autonomia bultzatu, (dagokien gaietan), proiektu orokorraren aberasgarri izan dadin.
- Ekonomiaren kontrolean eta erabileran
- Erakundeekiko koordinaketan
- Eskolaren norabidea aztertzen

Era berean, eskola, herriko eta inguruko erakundeekin, administrazioarekin, eta abar harremanetan egongo da.

II. HELBURUAK

1.- Prozesu integralarekiko helburuak

A- Pedagogia arloan

- Irakasle eta ikasleen arteko harremana bultzatu
- Norberaren orijinaltasun eta indibidualtasuna sustatu, autoezagupena bultzatuz, bakoitza nor izanez, bere buruarekin zuhur jokatzuz, aukerak eginez eta erabakiak hartuz bizitzeko gai izan dadin.
- Hezkuntza behar berezien aurrean jokaera baikor eta osagarriak bultzatu
- Ikasleengan espiritu eta gaitasun kritikoa garatu, ikasle hauek gauza izan daitezten:
 - norberaren esperientzia eta egoera baloratu eta interpretatzeko
 - ingurukoekin komunikatu nahi horretan, elkarrizketarako prestutasuna izateko
 - ingurua aztertu eta gizarte bidezkoago baten alde lan egiteko konpromisoa hartzeko
- Ikaslearen integrazioa (bere buruarekiko eta inguruarekiko) bultzatu.
- Ikasleari bere buruarekiko, ezaugarri, aukera eta mugekiko, irudi orekatua lortzen lagundu, bere egitekoa era autonomo eta orekatuan bideratu ahal izateko autoestima maila garatuz.
- Ariketa fisikoak, higienikoak eta elikadurak osasun eta garapenerako zein nolako garrantzia duten balora dezaten ikasleei lagundu
- Ikasleen artean dauden desberdintasunak konpentsatu, diskriminazio-iturri izan ez daitezten, eskolako ingurunera egokitze bitartekoak jarritz.

B- Instituzio arloan

- Ezgaituei egiten zaien diskriminazioaren (eskoletan onartu ez, hirigintza aldetik...) aurka lan egin
- Ikasle guztien eskolaratze egokia bermatu, prebentzioa, identifikazioa, bilakaera eta hezkuntza erantzuna posible egiten duten bitarteko eta baliabideak bideratuz.

2.- Metodologiarekiko helburuak

A- Pedagogia arloan

Ikasleekiko

- Ikasleen espiritu kritikoa bultzatu
- Irakaskuntza ekintzailea sustatu, inizatiba eta sorkuntza garatuz
- Ikasbide esanguratsuen eraikuntza ziurtatu
- Laguntza berezia behar duten ikasleak (ezgaitu, fisiko, psikiko, nahiz sozialak) gela arruntetan txertatu eta behar dituzten baliabideak eman
- Dauden desberdintasunetatik abiatuta, dibertsitatearen barnean, integrazioa landu
- Ikasketen funtzionaltasuna eta diziplinartekotasuna bultzatu
- Garapen teknologiko eta zientifikoaren eragina ezagutu eta baloratu
- Pentsamolde zientifikoa sustatu; zalantzak, hutsegiteak, jakin-mina, gauzapena, gauzen zergatia...
- Lanen aukeraketa eta honen taldeka nahiz bakarkako eraketara, ikasleak bultzatu.
- Autoebaluaketarako ohiturak sortarazi: hasierakoa, prozesukoa, amaierakoa...
- Ikaslea informazio bila, talde lanean eta abar... mugitu ahal izateko moduan antolatu gela
- Ikasleen interesguneak kontutan izan
- Lana adierazteko ikaslearen gaitasuna hobetu
- Eskola ingurunean txertatu, ikasleek errealitate sozial eta kulturalarekin harremanetan jarriko dituzten ekintzak bultzatuz
- Irakasle-ikasleen arteko harreman eta elkarlana sustatu, baita ikasle beraien artekoa ere, irakaskuntza egiazki garrantzizkoa eta aktiboa izan dadin
- Erabaki pedagogikoetan ikasleek (adin bakoitzari dagokion mailan) parte har dezaten bitartekoak jarri

Irakasleekiko

- Unitate didaktiko bakoitzean proposatzen diren helburuak eta horien zergatiak ezagutaraziko dizkiete irakasleek ikasleei.
- Irakasleek ikasleekin batera lan egingo dute, elkarrekin ikasiz eta aztertuz.
- Autoebaluaketarako ohiturak sortaraziko dira, irakaslea dela, unitate didaktikoak direla edo talde-lana dela.

- Talde-lana bultzatuko da eta baita irakasleen arteko koordinazioa ere, antolakuntzan, ikasturteko programazioan eta ebaluatzeko orduan.
- Langileriaren prestakuntza iraunkorra eta erreziklaiak sustatu, orokorrean nahiz espezializazio mailan, eta halaber beste esperientzia eta pedagogia berrikuntzarako mugimenduekin harremanak sendotu.
- Gurasoekin batera, tutoretza lan egoki bat burutu heziketa prozesu osoan zehar, arazoen aurrean batez ere.
- Derrigorrezko Heziketa amaitzerakoan, ikasleak bideratzen ahalegindu, aurkituko dituzten bide desberdinen artean, kontutan izanik bakoitzaren interesgune, ahalmen eta aukerak.
- Heziketa prozesua osotasunean ebaluatu. Ebaluaketa horien ondorioak gurasoei agertuko zaizkie aldiro aldiro bileretan, ahoz.

B- Instituzio arloan

Barne Proiektzioa

- I.H.P.ren bitartez Eskola Komunitatearen funtzionamendua maiztasun batez ebaluatu

Kanpo Proiektzioa

- Eskolako ekintzetan parte hartu arazi herriari
- Eskolen arteko esperientzian elkartrukatzea bultzatu

3.- Hizkuntza eta kulturarekiko helburuak

A- Pedagogia arloan

Ikasleekiko

- Ikastetxeko komunikazio-hizkuntza bakartzat euskara erabiltzea
- Hizkuntzaren erabilgarritasun eta funtzionaltasunez jabetu dadin, ikaslea, komunikazio-egoera errealetan jarri.
- Euskara komunikaziorako bide izateaz gain, motibazio gai izan dadin lortu
- Ikasleek dituzten euskara maila desberdinak kontutan izan:
 - ama hizkuntza dutenek aberats dezaten
 - hizkuntza zailtasunak dituztenei laguntza emateko, horretarako behar diren bitartekoak eskainiz

- Derrigorrezko ikasketen amaieran, herri honetako bi hizkuntza ofizialak menderatzea lor dezatela ikasleek, kanpoko hizkuntza bat ulertu eta maila batean erabiltzeko gai direlarik.
- Gure herriaren eta bere inguruaren oinarrizko ezagutza historiko, sozial eta kulturalak barneratzen lagundu ikasleari, herri honen bilakabide eta garapenean eraginkor parte hartzeko gai izan dadin, munduko beste herrialdeetako kulturekin harreman zabalak izanez.

Irakasleekiko

- Irakasleen arteko hizkuntza bakarra euskara izatea

B- Instituzio arloan

Barne Proiektzioa

- Gurasoengan euskararekiko motibazioa landu beren seme-alaben euskararekiko ahalegina baloratzeko edota beraien hizkuntza ikasteari ekiteko
- Hezkuntza komunitateko partaide guztien arteko hizkuntza euskara izan dadin saiatu

Kanpo Proiektzioa

- Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa bultzatzen duten ekintza guztietan parte hartu
- Ikastetxe eta Erakunde arteko harremanak euskara hutsean bideratu
- Euskal kulturarekin lotutako ekintzak bultzatu eta beraietan parte hartu

Etengabeko heziketa eta formazioa

- Gai honetan prestatu eta birziklatu nahi duten ikastolako langileei bitarteko egokiak eskainiko dizkie eskolak. Era berean euskalduntze prozesuan sartzera motibatuko ditu gurasoak.
- Euskara eta euskal kulturaren sakontzera bultzatu irakasleria
- Euskara ikasi nahi duten gurasoek sustatu eta erraztasunak eman

D- Administrazio esparrua

Barne nahiz kanpo harremanetarako euskararen erabilpena indartzeko beharrezko diren bitartekoak eskainiko ditu ikastolako administrazioak.

E- Giza eta zerbitzu-esparrua

- Eskolatik kanpoko harreman eta komunikazioetan euskararen erabilpena sustatu.
- Eskola-komunitatearekin harremana duten talde guztietako (jangela,...) hizkuntza, euskara izatea lortu.

4.- Aniztasuna eta balore demokratikoekiko helburuak

A- Pedagogia arloan

Ikasleekiko

- Besteei entzuten jakiteko jokabideak bultzatu
- Pertsona guztien bizimodu, sinismen, iritzi eta ideiak baloratu eta aitortu
- Ikasleen artean elkarlanerako ohitura eta jokabideak landu
- Elkarbizitzen eta solidarioak izaten lagundu ikasleei, inolako dogmatismo eta ezarketarik gabe
- Nork bere sentimenduak adierazi ahal izateko giro egokia bultzatu
- Natura eta kultur ondarearekiko errespetua eta estima bultzatu eta zaintzen erakutsi
- Ikasleen arteko elkarlana eta laguntza bultzatu, geletan sortzen diren norgehiagokeriak baztertuz
- Eguneroko bizitzan justizia eta elkartasunaren zentzua sustatu
- Inolako diskriminaziorik (sexu, arraza, itxura fisikoa, maila soziala, ezaugarri psikikoak,...) egingo ez den harreman markoa onartu
- Gure kultura eta tradizioaren balore, sinesmen eta jokaerak ezagutu, kritikoki baloratu, gero pertsona bezala nor beraren garapena ondoen ziurtatuko dutenak aukeratu ahal izateko.

Irakasleekiko

- Elkarlanean, irakasle guztien jokaera partehartzaile eta solidarioa lortu

B- Instituzio arloan

Barne Proiekzioa

Hezkuntza-komunitateko kide guztien balore eta ideiak errespetatu

Kanpo Proiektzioa

Ikastetxeen artean elkarlaguntza eta solidaritatea sustatu.

D- Giza eta zerbitzu esparrua

- Hezkuntza komunitate osoaren lan eta ekarpenak behar bezala baloratu
- Estamentu desberdinen artean elkarlan eta berdintasun giroa bultzatu

5.- Hezkidetzarekiko Helburuak

A- Pedagogi arloan

- Material didaktikoan sexu-estereotipoak erabili ez daitezen lan egin
- Jolas misto eta elkarlaguntzazkoak bultzatu
- Lan talde mistoak sortzera bultzatu
- Liburuetan egon daitezkeen informazio eza (emakumeei buruz) osatu
- Sexu arrazoiak direla eta egin ezinezkotzat jo izan diren ekintzak bultzatu
- Neska-mutilengan sentimendu naturalak adieraztea bultzatu (negarra, amorrazioa, beldurra, goxotasuna, afektibitatea...)
- Gai honi gizartean ematen zaion tratamenduaren aurrean ikasleak jokabide kritikoa hartzera bultzatu
- Irakasleriaren barnean jokabide-aldaketa bultzatu, formazioa eta irakasleen arteko elkartrukatzearen bidez.
- Sexu-diskriminazioa eragin dezaketen mezuak ez luzatu

B- Instituzio arloan

- Aita-amek, batak nahiz besteak parte har dezaten, komunikazio bideak sortu
- Gai honen inguruan, eskola-komunitatean sentsibilizazioa bultzatu
- Ikastolaz kanpoko pertsonekin hartzen diren konpromisoak, sexu-estereotipoek baldintzatuak egon ez daitezen saiatu

6.- Zentroko gestioarekiko helburuak

Pedagogia arloan

Ikasleekiko

- Ikastetxe barnean elkarbizitzarako jokaerak bultzatu
- Ikasleei (adinaren arabera dagokien mailan) kompetentziak eman: gela barruan, “zentroan”, ikastolako gestioan...

Irakasleekiko

- Irakasleek etengabe ekintzaile izatera bultzatu, koordinazioa errazteko bideak jarritz.
- Zenbait helburu lortzeko, irakasleei erantzukizunak banatu.

B- Instituzio arloan

Barne Proiekzioa

- Gurasoen partaidetza bultzatu
- Ikastolaren gestioan, ikasleen partaidetza bultzatu
- Asanblada, ikastolako gestio organo erabakigarri gorentzat hartu
- Aukeratutako gurasoak gela-ordezkarri gisa onartu praktikan, Gelaburuen koordinadoran.
- Gurasoen arteko harremana eta guraso-irakasleen artekoa bultzatu, elkarrizketa sustatuz.
- Eskola-komunitateari ikastetxeko funtzionamenduaren berri eman eta parte hartzera bultzatu, estamentu bakoitzaren garrantziaz ohartaraziz.

Kanpo Proiekzioa

- Herri erakunde eta administrazioarekin harremanak bideratu
- Hernaniko ikastetxe desberdinen arteko harremanak bultzatu

Etengabeko hezkuntza eta formazioa


- Ikastolako gestio-organoetan parte hartzeko beharra bizirik mantendu
- Eskola-komunitateko estamentu guztietan autokritika bultzatu

D- Administrazio-esparrua

Ikastolako Hezkuntza-komunitate osoa ongi informatuta mantentzeko bideak garatu.

III. EGITURA

Ikastolaren Barne Antolaketa



BATZAR NAGUSIA

Erabaki guztietan burujabe da, edozein kargu, barne egitura, komisio, pedagogia-hezkuntza, kultur programa, diru inbertsio, aurrez harturiko erabaki eta abar ezeztatzeko edo berriak proposatzeko eta erabakitzeko ahalmena du.

Ikastolako guraso eta langile (irakasle-ez irakasle) guztiak osatzen dute.

Batzar Nagusirako deia, Gelaburuaren Batzordearen bidez egiten da.

Batzar hauek izan daitezke: informatiboak edo erabakigarriak.

Urtean bi aldiz bilduko da gutxienez Batzar Nagusia:

- ikasturtearen hasieran urteko plangintza onartu eta gelaburu berrien hautaketa ziurtatzeko
- ikasturte amaieran urtean zehar egin denaren balorapena egiteko

GELABURUEN BATZORDEA

Batzar Nagusiaren ordezkaria da. Ahalmen exekutiboarekin, gaiaren garrantziak Batzar Nagusia bildu beharrik ez duen heinean.

Ikastolaren dinamikaren motor (arduradun) eta koordinatzailea da. Ziklo, gela edo lan ekipoetako guraso ordezkariak, komisio ordezkariak eta langileen ordezkariak osatutako batzordea da.

Gelaburua: gelako edo ekipoko gurasoen batzarraren ordezkaria da. Gelako iritzien bozeramaile izango da eta ordezkatzeko duen batzarrari kontuak emango dizkio.

Gelaburuaren Batzordea hamabostean behin bilduko da (oro har)

Gelaburuaren batzordearen funtzioak

- proiektu eta antolaketa pedagogikoaren ardura (jarraipena egin, aztertu, akatsak planteatu, proposamen berriak egin-jaso eta bideratu)
- erreformaren eztabaida bideratu eta gure irtenbidearen noranzkoa sakondu, ikastolan eztabaida zabalduz.
- Euskal Eskola Publiko Berriaren bidean sortzen diren betebeharren eta jarraipenaren ardura izango du.
- Ikastolaren administrazio ekonomikoaren kontrola: pertsonalaren arazoak, erreziklariak, subentzioak, inbertsioak, diru-iturriak. Urteko aurrekontua, balantzea, eta abar.
- Azpiegituraren plangintza: lokalak, mantenimendua, herriko eskola plangintza.
- Jangela: janariaren kontrola, arazo orokorrak, irtenbide globalaren ardura.
- Kultur mailako zereginak. Elkartasun harremanak (ikastola barnean, herri mailan, eskola arteko harremanak, beste ikastolekin (Seaska eta abar)

- Administrazio eta herriko instituzioekin harremanak izango ditu, Udaletxeko komisioetan parte hartuz.

GELA BILERA

Gela bakoitzeko irakasleak eta gurasoek egiten dituzten bilkurei ematen diegun deitura da.

Irakasleak nahiz gelaburuak deitua izan daiteke.

Gaiak:

- Haurren hezkuntza prozesuari dagozkionak
- Ikastolari orokorrean dagozkionak

Oro har, bilera hauek hilean behingo maiztasunarekin egiten dira

KOMISIOAK

Badira komisio batzuk iraunkorrak, eta beste batzuk une bakoitzeko beharrei erantzuteko sortuak.

Komisio bakoitzak eginkizun zehatz bati erantzuten dio. Euren funtzioa lana aztertu eta irtenbideak aurkitzea da, proposamenak gelaburuei aurkeztuz bideratuko dituztelarik.

Irakasleriaren antolaketa

PEDAGOGIA BATZORDEA

Konposaketa

Batzorde honetan ordezkatuta daude ikastolak bere irakaskintza planetan barne hartzen dituen etapa, ziklo eta tailer desberdinetako irakasleak, behar berezietarako ordezkaria eta Erreformari begira lanean ari diren pertsonak.

Funtzioak

- Ikastetxeko proiektu Curricularraren bideratzea eta jarraipena egitea.
- Irakaskuntzaren maila, ziklo eta etapan arteko koordinaketa gauzatzea.
- Ikastolako Hezkuntza Proiektu eta Curriculumaren arteko koherentzia bermatzea

Kanpo proiektzioa

Aipaturiko helburuak garatu ahal izateko, batzorde honek lagungarri gertatuko zaizkion bitartekoak bilatuko ditu:

- Mintegiak
- Hitzaldiak
- Berritzegunea
- Beste ikastetxeekiko esperientzia trukaketa-harremanak.
- Pedagogia Berrikuntzarako Mugimenduekiko harremana eta partehartzea.

Barne Proiektzioa

Batzorde honek, urtero, hezkuntza komunitate osoari egiten ari den lanaren berri emango dio.

ZIKLO BILERA

Konposaketa

Bertan parte hartzen dute ziklo berean lan egiten duten irakasleak eta lagungarri gerta dakioken beste edozeinek.

Funtzioak

- Pedagogia Batzordean onartutako gaien azterketa
- Hezkuntza Proiektu Curricularrari dagozkionak:
 - Zikloko haurren ezaugarri psikologikoak berrikustea
 - Curriculumaren eraketa zikloan
 - Zikloko gutxieneko edukiak finkatzea
 - Edukien sekuentziazioa aztertzea
 - Metodologia aztertzea
 - Ebaluaketarako irizpideak zehaztea

Kanpo Proiektzioa

Bilera hauetan zehaztuko dira:

- Gela bileretan gurasoekin tratatu beharrezkoak ikusten diren gaien azterketa eta prestaketa
- Ebaluaketak (gurasoekin): moduak, maiztasunak, irizpideak
- Finkatzen diren helburuak garatu ahal izateko, sortzen diren beharrak, Pedagogia edo Zuzendaritza Batzordera bideratzea.

TAILERRETAKO BILERAK

Konposaketa

Bilera hauek hiru arlotan banatzen dira, hiru tailer osatuaz:

- hizkuntzakoa
- matematikakoa
- inguru azterketakoa

Ekipo bakoitzeko arlo arduradunek parte hartzen dute tailer bakoitzean. Tailer-bileran ordezkatuak daude, erdi eta goi zikloko maila guztiak.

Funtzioak

- areako curriculumak eratzeko
- tailerraren antolaketa zehaztea
 - espazioa
 - baliabideak
 - metodologia
 - edukien sekuentziak
 - arloari dagozkion ebaluaketa irizpideak

Kanpo Proiektzioa

Tailerretako bileretan finkatu diren helburuak bete ahal izateko sortzen diren beharrak, Pedagogia edo Gelaburuen Batzordera bideratuko dira.

Barne Proiektzioa

Irakasle bakoitzak, bere ekipoan tailerreko erabaki eta iritzien berri emango du.

Tailer bakoitzak diziplinartekotasunari buruzko erabakiak aintzakotzat hartuko ditu.

EKIPO BILERA

Konposaketa

Bertan parte hartuko dute elkarrekin lanean ari diren taldeetako irakasleak (normalean adin bereko hurrekin, eta bi edo hiru geletan)

Funtzioak

- mailari dagozkion curriculumaren gaiak aztertzea
- ziklorako zehaztuta dauden Helburu Pedagogikoak ezagutu eta mailari egokitzea
- gelaren antolaketarako irizpideak elkarjartzea
- metodologiari dagozkion zehaztapenak eztabaidatu eta prestatzea
- ebaluaketarako irizpideak zehaztea
- behar bereziak dituzten haurren egoeraren azterketa egitea
- gela bilerak prestatzea
- irteeren plangintza egitea
- gelen arteko harremana bermatzea

BEHAR BEREZIETAKO TALDEA

Konposaketa

Laguntza berezia behar duten haurrei laguntzeko, geletan tutoreetatik at ari diren irakasleek osatzen dute.

Talde honen laguntza izango dute tutore eta gurasoek, laguntza premia bereziak sortzen zaizkienean.

Funtzioak

- behar bereziak dituzten haurren azterketa eta jarraipena egitea
- curriculumak egoera desberdinei egokitzea eta hainbat kasuetan ikasleekin lan hori bideratzea.
- Tutoreentzat lagungarri izan daitezkeen irizpideak ematea.
- Behar denetan, haur horien gurasoekin harremanak izatea.

Kanpo Proiekzioa

Sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko instituzio desberdinen laguntza bilatuko du:

- Berritzegunea
- Ongintza
- Osakidetza
- Delegazioa
- Udaletxea

- Terapia erakunde, nahiz teknikoetan...

IRAKASLEEN KOORDINADORA-ZUZENDARITZA TALDEA

Konposaketa

Ikastolak duen zentro bakoitzeko irakasle ordezkariak eta zuzendariak osatzen dute talde hau. Taldeak beharrezko jotzen duen guztietan ikastolako administrazio arduradunaren partaidetza ere izango du.

Funtzioak

Hau izango da ikastetxeko Zuzendaritza Batzordea

Batzorde honen egitekoa da, eta zenbait kasutan bera ordezkatzeko duen eta zuzendari bezala liberatuta dagoen pertsonarena, Gelaburu Batzordeak hartutako erabakiak eta ikastolaren martxari dagozkion ohizko lanak bideratu eta exekutatzeko.

- Dagoen informazioa biltzea: Gelaburu, Delegazioa, Federazioa, zentro, ziklo, eta abarretatik eta berriro ere birbideratzea: gelaburutara, zentroetara, irakasleen asanbladara, eta abar.
- Irakasleen batzarraren deia egitea. Prestatu, bideratu eta akta jasotzea.
- Irakasleriaren kokapenaren plangintza egitea. Nor zein geletan edo zein lanetan egongo den erabakitzea. Hala ere erabaki honek beti kontatu beharko du irakasle asanbladaren oniritziarekin.
- Irakasleek osatzen dituzten komisioko eta arduren arteko koordinazio lana burutzea.
- Ziklo, tailer, eta abarretatik datozen proposamenei irtenbide bat bilatzea.
- Eskakizunak batzordearen ahalmenak gainditzen dituenean, gelaburuetara bideratzea.
- Pertsonal arazoetan, langile eta Gelaburu Batzordearen bitartekaritza egitea.

Batzorde honen egitekoak dira ere:

- Ikastolako korrespondentziaren ardura
- Irakasle eskolatik praktikak egitera datozen ikasleen ardura
- Langileen ordezkapenen zerrendaren ardura

IKASTOLAKO LANGILEEN ASANBLADA

Ikastolan lan egiten duten irakasle eta ez-irakasle guztiek osatzen dute. Ohiko deiak irakasleen koordinadorak egiten baditu ere, langileek osatutako edozein batzordek konboka dezake.

Langileen antolaketan eta hartu behar diren erabakietan, dauden organoen artean, batzar hau da gorenena. Bertan hautatuko dira ikastolako batzordeetan langileak ordezkatzeko dituzten kideak eta hauek batzar honen aurrean izango dute erantzukizuna.